

# ARARTEKO



2003ko martxoa

5.zenb.

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 2002-LABURPENA

## WWW.ARARTEKO.NET ZURE ESKUBIDEAK BABESTEKO BIDE BAT

Ararteko erakundeak, pertsonen administrazio desberdinekiko harremanetan dituzten eskubideen gaineko informazioa eman eta pertsonen eskariei jaramon egiteko lanean, komunikazioko teknologia berriei helduz, Internet ere finkatu du herritarrek beren kezak jartzeko bide modura. Gero eta gehiago dira web orrialdeko kexa aurkezpenarako formatuaz baliatzen diren herritarrak (www.ararteko.net), behin eskatzen diren datuak bete ondoren, erreklamazioa, zuzenean, Interneteko toki horretatik bidaltzeko. Baina, gainera, Ararteko erakundeak, herritar guztien eta, bereziki, talderik ahul eta behartsuenen eskubideen defendatzaile izanik, bere web orrialdean, haurrekin lotutako gaien

berriazko atala funtzionatzen jarri du. Txosten bereziak, material didaktikoak, Haurren Eskubideen Hitzarmenaren testua eta UNICEFekiko lotura bat dira adingabeen web horretan dauden edukietako batzuk, eta berritasun guztiak gehitzen saiatzen gara. Ekimen berri honekin gogoetan lagundu nahi genuke, eta haur eta nerabeen, batez ere behartsuenen beharrezkoen dagokienez pertsonen sentibiltasun areagotzen eta haur eta nerabeen eskubideen defentsan eta babesean aktiboki parte hartuko duen gizartea eraikitzeko bidean aurrera egiten ere bai.



Mertxe Agúndez Juan Mari Atutxa Legebiltzarreko Lehendakariarekin



Adin-txikikoaren webgunea

## ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN

- 2002 urtean 3.572 kontsulta artatu dira Ararteko erakundearen arreta zuzeneko hiru bulegoetan.

- Guztira 1.253 kexa jaso dira, horietako % 13,73 kexagileek web orrialdetik bidali dituztelarik.


- Arartekoak, bere ekimenez, irregulartasunak egon zitezkeen edo zerbitzu berriak emateko aukera pizten zuten hainbat gairi buruzko ikerketari ekin dio. Ofiziozko 91 jarduera izan dira.

- Eragingarritasun maila oso handia da. Aztertu ondoren irregulartasunen bat zegoela iritzi genien erreklamazioetako % 90 baino gehiagotan, ukitutako administrazioak jarduera ongi edo arteztu zuen.


- Bideratutako kexen % 45,33 udalen aurkakoak izan dira, % 35,89 Eusko Jaurlaritzaren jardueren aurkakoak eta % 15,77 foru administrazioen aurkakoak.

- Arartekoaren esku-hartzea oso ondo hartu edo ikusten dute kexagileen % 81,75ek, baita beren arazoa konpondu ez zaien edo beren alde irten ez denen artean ere. Gehienek jendeari Arartekoarengana jotzea gomendatuko liokete, administrazioen batekin arazorik izatekotan.

KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA



ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



## DATU OROKORRAK

2002 urtean 3.572 kontsulta artatu dira Ararteko erakundearen arreta zuzeneko hiru bulegoetan. Guztira hartutako bisiten kopurua, 2.332, nabarmen gehitu da, batez ere Gasteizko bulegoan. Horietatik 691 kexa batean gauzatu dira, % 26,63k arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lana agerian utzi dute, honengatik edo bestearengatik, Arartekoak ikertu ezin dituen gai desberdinei buruzko erreklamazioak onartu ez direlako.

Gainera, Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko duten bide garrantzitsu gisa ere finkatzen ari da. Guztira jasotako kexen % 13,73 erakundearen web orrialdearen bidez heldu dira (www.ararteko.net).

2002an, herritarrek guztira 1.253 kexa jarri dituzte Arartekoarenean. Alabaina, kontuan izan behar da zenbait erreklamazio hamarnaka sinadurarekin etortzen direla, eta % 13,56 kolektiboren batek aurkeztu dituela.

Izapidetzen 2002an amaitu diren kexei dagokienez, aztertutako banakako edo taldeko kexen % 26,64an irregulartasunen bat zegoela ebatzi da. Baina ukitutako administrazioak kexa eragin zuen jarduera ongi du, aztertu ondoren irregulartasunen bat zegoela ebatzi den erreklamazioen % 90,32an. Kasurik gehienetan (% 92,41) gomendiorik luzatu behar izan gabe ongi edo arteztu dira. Erakundearen eragingarritasun mailak, beraz, gogobetetasun handia dagoela adierazten du.


Herritarrek jarritako kexez gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, irregulartasunak

egon zitezkeen edo zerbitzu berriak emateko aukera pizten zuten hainbat gairi buruzko ikerketari ekin dio. Ofiziozko 91 jarduera izan dira, guztira.

Kexek zer gai eremuri ukitzen dioten kontuan izanez gero, ikusten dugu 2002an, aurreko urtearen aldean, eremu bakoitzean biltzen diren erreklamazioen kopuruetan aldaketa batzuk izan direla. Hartara, Funtzio Publikoaren alorreko kexa kopurua ikaragarri jaitsi da (2001ean baino 246 gutxiago), aurreko urtean kexa berdin multzoak izapidetu baitziren. Aitzitik, Hirigintza eta Etxebizitza gaitako erreklamazioak ugariagoak izan dira (106 kexa 2001ean eta 158 2002an), baita Herrizaingo Sailarekin zerikusia dutenak ere (aurreko urtean baino 51 gehiago).


2002an erreklamatorik gehien tokiko Administrazioak jaso du, izapidetutako kexa guztien % 45,33 berari joan zaizkio-eta. Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak % 35,89 dira, eta

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA



1	Hirigintza eta Etxebizitza	8	Ingurumena
2	Herrizaingoa	9	Hezkuntza
3	Funtzio Publikoa	10	Justizia
4	Heri Lanak eta Zerbitzuak	11	Kultura eta Elebitasuna
5	Gizarte Ongizatea	12	Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
6	Osasuna	13	Lana eta Gizarte Segurantzza
7	Ogasuna		

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




% 15,77 Foru Administrazioari egin zaizkio. Espedienteetan inplikaturako administrazioak aztertzeak ez du esan nahi irregulartasunik egin dutenik.

Kexarik gehien jasotzen duten udalerriak Bilbo (82 kexa), Gasteiz (59) eta Donostia (40) dira. Gainera, Bizkaian Barakaldo, Getxo eta Portugaletak, eta Gipuzkoan Errenteria, Hondarribia eta Irunek kexa kopuru aipagarria daukate.

Kexagileek beren borondatez eta izenik eman gabe betetzen duten galdera sortaren emaitzek adierazten dute Arartekoaren esku-hartzea oso ondo ikusten dela (galdera sorta erantzun dutenen % 81,75ek), baita arazoa konpondu ez zaien edo beren alde ebatzi ez den kasuetan ere. Askok baiesten dute, gainera, jendeari Arartekoarengana jotzea gomendatuko lioketela, administrazioen batekin arazorik izatekotan.


ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2002)




1 545 kexak kexa berdin-berdin multzo bat osatzen dute.  
 2 1.143 kexak kexa berdin-berdin 2 multzo osatzen dituzte.  
 3 62 kexak kexa berdin-berdin multzo bat osatzen dute.  
 4 264 kexak kexa berdin-berdin 2 multzo osatzen dituzte.

## KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA





Hontza zentroa (El Correoren argazkia)

## HONTZA ZENTROA: ETXERIK GABEKO DROGA MENDEKO PERTSONEN ARTAPENA

Bizkaiko Caritasek, Zamakolan prestatutako lokal batean kudeatzen duen gaueko harrerako Hontza zentroaren jarduerak azaroak izan ditu, hasiera-hasieratik. Zentroak 2001eko uztailaren 4an ekin zion zerbitzuari. Handik egun batzuetara, auzokoen arazoak kontuan izanik, ixtea erabaki zen, jarrera desberdinak hurbiltzen saiatzeko. Alderdi batzuek lortutako akordioaren ondoren (gotzaintzak eta alkatetzak), eta auzotar batzuk aurka zeudela, abenduan berriro zabaldu zen, eta 2002 urtean poliziaren zaintzapean jardun izan da. Arartekoak 2001ean gai honetan esku hartu zuen, Zamakola 9.eko jabeen erkidegoak jarritako keaxaren, Caritasek esku hartzeko egindako eskariaren eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Biziberritzeko Taldeen Koordinakundeak helarazitako kezkaen ondorioz. Batzuek zentroa zabaltzean auzuneari ekarriko lizkiokeen arazoak azpimarratzen zituzten eta ixteko eskatzen zuten; beste batzuek Arartekoaren bitartekaritzara eskatzen zuten zentroak bere lana baldintza egokietan bete ahal izateko. 2002an, erakundearen esku-hartzea ofizioz etorri da, komunikabideetan agertutako hainbat albiste kezka garriren ondoren, eta zentrorara, arazoak, erabilpen datuak eta etorkizuneko igurikapenak bertatik bertara ezagutzeko egindako bisitaren ostean. Kexaren ondoriozko lehenengo jarduera 2001eko uztailaren hasi zen arren, erakunde honen jarrera aktiboa zerbitzu horien beharra defendatu eta sortzea sustatzearen aldekoa izan da. Horren gainean, legez bestelako proposamen bat ere bazegoen, Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onetsi zuena.

Gure esku-hartzea honako jarduerotan gauzatu zen: udalarekin izandako zenbait

bileratan, auzokideei, Caritas eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Biziberritzeko Taldeen Koordinakundeari bidalitako zenbait informazio idatzitan, zentroaren instalazioetarako bisitetan, jarrerak hurbiltzen saiatzeko bileraren bateko presentzia aktiboan, polizia jardueren gaineko gestioetan, e.a.

2002ko urteko ofiziozko esku-hartzeak polizia kontuetara eta zerbitzuaren funtzionamendurako eta jarraipenerako beharrezko neurriak bermatzera bideratu dira. Hartara, auzokoen jarduera jakin batzuen gainean jasotako informazioaren eta poliziaren balizko inhibizioaren aurrean, erakunde honek Caritaseko langileei zenbait astetako eguneroko gorabeheren kontakizuna helarazteko eskatu zien. Gainera, egoera bertatik bertara ezagutzeko, erakunde hau zentrorara joan zen, eta hango erabiltzaileekin gau batean ere egon zen, inplikaturako kolektibo desberdinen informazioa biltzeaz gain: erabiltzaileak, zentzoko langileak, boluntarioak, segurtasun langileak, udaltzainak eta beren arduraduna, eta ertzainak eta beren arduraduna.

Jasotako informaziotik hainbat ondorio aipagarri atera ahal izan genituen, hala nola, gehienak bat zetozela auzokideen presioa gehitu zela; polizia jardueretan irizpide desberdinak zeudela; auzokideen jarduerari buruzko frogak elementuak (bideo grabaketak) zeudela. Horren ildotik, Arartekoak ofiziozko beste espediente bat abiatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Herrerizango Sailaren aurrean, eta beste bat Bilboko udalaren aurrean, gai hauetaz. Ondoren, zerbitzua Zamakolatik San Antonera lekualdatzeko hasieran aurreikusitako data baino aste batzuk

lehenago, erakunde honek berriro jo zuen Bilboko udalarengana, informazio eske, bereziki lekualdatetaren aurreikuspenen, koordinaketa eta jarraipenerako mekanismoen, eta Hontzaren erantzun ahalmen mugatua osa lezaketen drogen mendeko pertsonak hartu eta artatzeko beste zerbitzu batzuk sortzeko aurreikuspenen gainean.

Gainera, gizarte eragileek baliabide horien diseinuan eta funtzionamenduan duten inplikazioari dagokionez, Ararteko erakundeak aukera izan zuen "Drogen mendekoen artapenerako baliabideei lotutako ekintza erkideko estrategien diseinu, ezarpen eta jarraipenerako gida metodologikoa" agiria zuzenean ezagutu eta baloratzeko, eta bere ekarpenak Eusko Jaurlaritzaren Droga Mendetasunen Zuzendaritza horren mandatuz egina zen, arestian aipaturako gure gomendioaren ildotik.

2002ko abenduaren 23an, hau da, hitzartutako muga epea baino egun batzuk lehenago, zerbitzua San Anton elizan prestatutako instalazio berrietara lekualdatu zen, hasieran gauerako 14 toki eta gehienez 30 pertsona hartzeko ahalmenaz. Jarraipen Batzordea eratu da, zentroaren funtzionamendua onartzeko, non erakunde, elkarte eta zerbitzu desberdinetako ordezkariak parte hartzen duten. Izan ere, zentroak zerbitzua eskaini duen hilaurretan, hari eta lekualdatu arte, 240 pertsona desberdin artatu zituzten, eta gau bakoitzerako tokien erreserba sistema bat antolatua behar izan zen. Urtean bildutako datuen arabera, baliabide gehiago behar dira, erakunde honek behin baino gehiago azaldu duen eta azaltzen jarraituko duen bezala.



## HEMENGO ARARTEKOAK ESTATUKO ARARTEKOARI ZIGORTUTAKO INTSUMISOEN EDO EPAIKETAREN ZAIN ZEUDENEN KASUETAN ESKU HARTZEKO ESKATU ZION

2001eko abenduaren 31n derrigorrezko soldadutza zerbitzua desagertu ondoren, urtarilean, jarduneko Arartekoak Enrique Múgica Estatuko arartekoari idatzia bidali zion, epaiketaren zain, zigortuta edo intsumitu izateagatik zigorra betetzen ari ziren euskal gazteen egoerarengatik kezkatuta zegoela adierazteko. 1995etik, erakunde honek Estatuko Arartekoari arrazoi eta proposamen ugari aurkeztu izan dizkio, kontzientzia eragozpenaren lege esparrua aldarazi beharra zegoela agerian jartzeko, soldadutza edo horren ordezkio gizarte prestazioa egiteko ukoa ez zigortzeko eta espetxeratzeko saihesteko. Antzeko proposamenak Arartekoaren Koordinaziorako Jardunaldietan edo armadak profesionalizatzeko Kongresu eta Senatuko Batzorde mistoan ere azaldu ziren.

Soldadutzaren eta ordezkio gizarte prestazioaren derrigortasuna kendu zenean, deigarria zen errealitate berriarekin bat ez zetozen egoera jakin batzuk mantentzea. Estatuko Arartekoak erantzun zigun, gure proposamenaren ildotik, Justizia Ministerioari gomendioa bidaliko ziola Zigor Kodearen lege aldarazpenerako bidezko izapideak abian jartzeko, ordezkio gizarte prestazioaren eta soldadutzaren betebeharra ez betetzeari buruzko delituen gaineko artikulua desagerraraztera begira. Era berean, Justizia Ministerioari ere desertzioa bezalako delituetan indultuak emateko ahalbidea ere kontuan hartzeko eskatu zion. Otsailaren 1ean, Ministroen Kontseiluak baliorik gabe utzi zituen jada ez zegoen derrigorrezko soldadutza-zerbitzua ez betetzea zigortzen zuten Zigor Kodeko artikulua.



(El Correoren argazkia)

## FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN PLANA

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, batetik, seme-alabak dituzten familiei diru-laguntzak emateko neurriak ezarri ditu eta, bestetik, lan eta familia bizitzak uztartzeko bideak sustatzeko neurriak. Familiei laguntzeko erakundearen planak bigarren seme-alabarengandik aurrerako jaiotza edo adopzioetarako hainbat laguntza unibertsal ezarri ditu, baita erditze eta adopzio ugarietarako ere. Ekimen horrek eragin dituen kexen artean, asko eta asko laguntzen denbora mugaren ondorioz etorri dira, 2002ko urtarilaren letik aurrera jaiotako kasuan soilik aplikatzen baitira. Data horrek ez du arazorik sortu gainerako laguntzei dagokienez (familia ugarien, edo erditze edo adopzio ugarien laguntzak), izan ere, urtekoak izanik, eta proiektuan hasieran aurreikusitakoa bestelakoa zen arren, laguntza horiek data hori baino lehenagoko erditze eta adopzioetarako ere bai baitira, bakoitzean finkatzen diren adin baldintzak betez gero. Arartekoak iradokitako aldaketa hori ontzat hartu behar da, neurriei antzematen zaien "jaiotzak suspertzeko" zantzuak ezabatzea lortzen ez duen arren. Izan ere, badirudi neurri hauek jaiotza suspertzera bideratzen direla, plana indarrean jarri baino lehen jada seme-alabak zaintzen ari zirenen gizarte lana sostengatu eta onartzera baino gehiago.



(Diario Vascoren argazkia)

## PAZIENTEEN DATUEN TRATAMENDU AUTOMATIZATUA: OSABIDE

Osakidetzak pazienteen datuen tratamendurako Osabide izeneko sistema ezartzearen gaineko keza batek zioen, tratamendu automatizatuak, zentralizatu izanik, pazienteen datuen isilekotasuna urratzen zuela. Konstituzioak espresuki babesten du pertsonen datuen tratamendu informatikoan ohorea eta intimitatea babesteko eskubidea. Aurreikuspen honetatik ez da datu pertsonalen tratamendurako informatikaren debekurik ondorioztatzen, baina bai erabiltzeko orduan muga bat dagoela. Intimitaterako eskubidea urratzea ez da informatikarekin sortzen, baina badirudi, informatika ezartzearen ondorioz, kontu handiagoz jokatu behar dela datu pertsonalen isilekotasuna zabaltzean. Hartara, historia klinikoaren fitxategiek beren helburua intimitatearen eskubidea errespetatzu bete dezaten legeriak ezartzen dituen baldintzak Osabidek betetzen zituen ala ez egiaztatzea bideratu zen gure jardueran. Osakidetzari informazioa eskatu genion, segurtasun maila altuko datu fitxategietarako 994/1999 Errege Dekretuak ezarritako neurriak betetzearen gainean. Segurtasuneko neurri teknikoekin zerikusia zuten alderdiez gain, baziren beste kontu batzuk ere, juridikoagoak. Zehazki, pazienteen baimenak beren datuen tratamendu automatizaturako zenbateko indarra edo irismena eduki behar zuten argitzea, eta tratamendu horri buruzko informazioa eman diezaieten duten eskubidea gauzatzeko. Osakidetzak aurreikusitako neurri guztien berri eman zigun.



## Harremanak euskaraz nahi zituen

## ERTZAINTZAK MANIFESTAZIO BAKETSU BATEAN ATXILOTUTAKO HERRITARRA

Ertzain batek protesta ekintza baketsu batean parte hartzen ari zen pertsona bati identifikatzeko eskatu zion. Manifestariak euskaraz mintzatu nahi zuela erantzun zion, euskaraz, eta ez zion poliziak gaztelaniaz egindako eskariari jaramonik egin. Ertzainak jarrera hori, identifikatu nahi ez izanagatik, desobedientziatzat jo zuen eta atxilotu egin zuen. Ertzain etxean, atxilotua euskaraz mintzatu nahi zuela tematu zen, eta horren ondorioz atxilotze aldia luzatu egin zitzaion. Ertzaintzaren txostenean oinarrituta, falta epaiketa abiarazi zen, baita epaia eman ere. Horren guztiaren kalterik gabe, Herrizaingo Sailari zenbait ohartarazpen helarazi genizkion. Iradoki genion, antzekorik gertatzen zen hurrengoetarako, operatiboan ertzain euskaldunik dagoen egiazta dezatela ezer egin baino lehen, ez baitzirudien egoera hark

ezinbestean berehalako erantzunik eskatzen zuenik. Txostenari dagokionez, bertan esaten zen “une oro jarrera horrekin poliziaren eginkariak oztopatzen saiatu zela”. Baliteke herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidean mugak aurkitzea, baina zaila zen hori poliziaren eginkariak oztopatzeko jarrera zenik onartzea. Han gertatu zena herritarrak euskara erabiltzeko duen eskubidearen muga bat izan zen, oinarrituna zein oinarrik gabea. Hartara, ondorioztatzen genuen txostenak hizkuntza aukeraren balorazio okerra jasotzen zuela, une oro oztopo gisa ikusi baitzuen. Handik hilabete batzuetara, Herrizaingo Sailaren erantzuna jaso genuen, baina zehaztasunik ez zuenez, berriro helarazi genizkion gure erreparorak. Herrizaingo Sailaren amaierako balorazioa jakiteko zain gaude.

## SPRIren JARDUERA NAHASGARRI BATEN ONDORIOZ, HERRITAR BATZUEK EZ ZUTEN DIRU-LAGUNTZA LORTZERIK IZAN

Herritar batek keza aurkeztu zion Arartekoari, izan ere, SPRI-Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea, S.A.k (SPRI, hemendik aurrera) ukatu egin zion esku-ordenagailu bat erosteko diru-laguntza, Konekta Zaitex programaren barruan. Kexan azaldu zuenez, esku-ordenagailu bat erosi zuen 2000ko azaroaren 18an, Konekta Zaitex laguntza-programak ezarritako epea hasi arte (hilaren 27a) itxaron gabe, bada berak behar zuten ordenagailuak ez zituen beteko, inola ere, programaren iragarpenean ezarri ziren baldintza teknikoak, ez baitziren erabiltzaile arruntek betetzeko modukoak. Iragarpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, azaroaren 16an. Hala ere, iragarpena argitaratu eta handik egun gutxira, esku-ordenagailuei exijitutako baldintza teknikoak nabarmen beheratzea erabaki zuen SPRIren Administrazio Kontseiluak. Baldintza

berriak 2000ko azaroaren 24ko EHAAn argitaratu ziren. Kexagileak adierazi zigunez, jakin izan balu hasierako baldintza teknikoak ez zirela iragarpenean ofizialean argitaratutakoak izango, azken baldintza eta epeen arabera egingo zuen erosketa. Bere ordenagailua egokitzeko prest zegoen, legez eskatutako baldintza teknikoak bete zitzaizkion, horrela programa horretan eskainitako onurak lortzearen. Kexa aztertu eta gero, Arartekoak ondorio hau ateratu zuen: diru-laguntza jasotzeko programa eratzean hain aldaketa garrantzitsuak egitean, SPRIk hautsi egin zuela programaren baldintzak ezarri zituenean herritarrengan sortu zuen bidezko konfiantza. Konfiantza galtze hori ekiditeko, interesdunari diru-laguntza emateko gomendatu zion, baldin eta hark azkenean ezarritako baldintzetara egokitzen bazuen bere ordenagailua. Gomendioa ez zen onartu.

## HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZETATIK KANPOKO LAGUNTZA KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA

2002an adinekoentzako egoitzak ikustera joan gara –egoitza publikoak eta itundutako tokiak dituztenak, Arartekoak 1994an zentro horien gainean egindako gomendioen jarraipena egiteko. Alde handiak daude udalerrri batzuetatik besteetara herritarrei eskaintzen zaien estalduraren artean. Batzuek larunbatetan ere jende guztia artatzen dute, baita Aste Santuko egun batzuetan ere, eta gainerako egunetan kasu berezietan arduratzen dira. Beste batzuek, berriz, ez dute artapenik ematen Aste Santuko segidako bost egunetan, ez eta asteburu osoan eta jai egunetan ere. Horregatik, uste dugu neurriak hartu beharko liratekeela, bai zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, bai senideen sostengurik ez daukaten pertsonen urteko edozein egunetan artapen pertsonala gutxienez bermatzeko.

Etxeko lanik ohikoenak ez lirateke 3 edo 4 egun baino gehiagoz eten behar, bereziki komunaren eta arroparen garbiketa. Bakarrik bizi diren eta kalera irteteko laguntza behar duten pertsona batzuen kasuan, harreman bizitzaren artapena kontuan izan beharko litzateke. Etxeko ohiko laguntzailea ez dagoenean, hura aldi guztietan ordezkatu beharko litzateke. Prestazioaren mota dela-eta, onuradunari banako diru-laguntza ematea baztertu eta udalak hartuko beharko luke zerbitzua eskaintzeko ardura. Ararteko erakundeak uste du etxeko zerbitzua araupezu beharko litzatekeela, irizpideak bateratuz eta zerbitzu horrek gure Autonomia Erkidegoaren esparruan bete beharko litzuzkeen gutxieneko oinarriak finkatuz, udalerrri batetik besterako desberdintasunak saihesteko.

## ANOETA INGURURA AUTOEI SARRERA IXTEA, KIROL EKITALDIAK DAUDENEAN

Donostian, Anoeta inguruan dauden hotel instalazio batzuen enpresa ustiatzaileak udalaren aurkako kexa jarri zuen, beste inolako alternatibarik eskaini gabe, Anoetako kirol eremuan edozein ekitaldi izan baino hamar ordu lehenago autoak instalazio horietara sartzeko bide bakarra ixteari neurrigabea irizten ziolako. Kexagileak zioenez, udalaren jarduerak, gainera, udalaren aurreko beste erabaki bat baliorik gabe uzten zuen, zeinetan autoei hotelaren instalazioetara baldintza jakin batzuetan sartzeko baimena ematen baitzieten. Legeen arabera, udalak nahieran hartu ahal ditu Anoetako kirol instalazioetan ekitaldirik izango denean trafikoa araupezeko egoki irizten dien neurriak. Baina Epaitegi Gorena esparru honetan gorpuztuz joan den dotrinaren arabera, gure ustez, zuhurtziaren araberrako jardura hori, halaber, zenbait mugaren mende ere badago eta, esaterako, udalak neurrikotasun printzipioa errespetatu behar du. Horregatik, udalari informazio horri datu zehatzak gehitzeko eskatu genion. Enpresa errekamaziogileari lehenago instalazioetara ibilgailu jakin batzuekin sartzeko emandako baimenari buruz, udalari jakinarazi genion jaramon egin behar ziola baimen horri, berrikusten ez zuen bitartean. Udalari gure balorazioaren berri bidali genionean, jakinarazi zigun kexaren gai berberarengatik, enpresa errekamaziogileak jarrita, administrazioarekiko auzi bideko errekurtsoa zeukatela bidean eta, ondorioz, guk geure esku-hartzea amaitutzat jo genuen.



(Diario Vascoren argazkia)

## GUTXIENeko ALTUERA BEHAR DA ERTZAIN IZATEKO

Ertzaintzan sartzeko interesa zuen herritar bat kexu zen erakunde honen aurrean, izan ere, horretarako gizonzkoen gutxienez 1,70 metroko altuera eta emakumeen 1,65 metrokoa exijitzen zaie, eta, bere ustez, bereizkeriazko zioa zen hori. Berdintasun printzipioak ez du tratu juridiko desberdindurik ematea eragozten, betiere tratu hori justifikazio objektibo eta zentzuzkoan oinarritzen bada,

eta, gainera, neurrikotasun lotura ere izan behar du. Horregatik, ezaugarri fisiko jakin batzuek, esaterako, altuera, lanpostu jakin batzuetara sartzeko orduan oztopo izatea nahikoa motibo den ala ez baloratu behar da. Horren gainean, badaude epaileen iritzia, polizia erakundeetarako ezaugarri fisiko zehatzak (besteak beste, altuera) exijitzea zentzuzkoa dela diotenak eta, ondorioz,

gizonari eta emakumeari exijitzekoa zaien altuera bereiztea ere badagoela, sexu bietan batez besteko altuerak desberdinak direlako. Ararteko erakundeak gogoeta horiek helarazi zizkion interesatuari eta adierazi zion, azken batean, polizia funtzio publikoan sartu ahal izateko gutxieneko altueraren eskakizun horrek epaitegien aldetik nahikoa sostengu zeukala.



## ADMINISTRAZIOA FORU ERREPIDE BATEAN JAUSITAKO ZUHAITZAK ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZULE ZEN

Foru errepide batetik zihoala, galtzadaren gainean eroritako zuhaitz baten kontra talka egitean autoan kalteak jasan zituen pertsona batek gugana jo zuen, iritzi eske, Arabako Foru Aldundiak ezetsi egin baitzion ondare-erantzukizunarengatik luzatu zion erreklamazioa. Foru erakundeko Herri Lanen sailari kexagilearen eskaria zergatik ezetsi zuen galdetu genion. Erantzunean, Aldundiak zioen kaltearen eragilea hirugarren baten axolagabekeria izan zela –istripua eragin zuen zuhaitzaren jabearena, zuhaitza ez baitzegoen foru errepideko inongo elementutan sartuta. Errepideen Foru Arauaren arabera, errepideekin mugan dauden lurzoruen jabeek segurtasun baldintzetan mantendu behar dituzte arauak

zehazten dituen babes-eremuetako landareak. Baldintza horiek bete ezean, Aldundiak jabeari bete ditzan agintzeko deia luzatuko dio eta, bestela, subsidiarioki egingo ditu. Gai honetan jarraitutako administrazio espedientean, zenbait gertakari kontuan hartu behar ziren, kaltea Administrazioak ez esku hartzeagatik gertatu zen ala beste zerbaiti leporatu behar zitzaion argitzeko. Hartara, errepidean zegoen zuhaitza oinarritik hautsi zen, kaltea eragin baino egun batzuk lehenago. Foru Aldundiko kontserbazio eta ustiapen zerbitzuko kontrolgileak ikusi zuen eta mendizaina ohartarazi zuen, jabeari arrisku egoera haren berri emateko. Ondoren, kontrolgileak berriro eman zuen arriskuaren berri, zuhaitza errepide

alderantz jausten hasia zela ikustean. Garbi dago zuhaitzaren jabeak mantendu behar duela segurtasun baldintzetan, baina, bide segurtasunerako arriskurik baldin badago, Administrazioak hartu behar ditu zirkulazioa bermatuko duten neurri egokiak. Ondorioz, Foru Administrazioa kexagileari eragindako kalteen erantzule zen, errepidea foru jabetzakoa zelako eta, espedientearen tramitazioan, argi geratu zelako eroritako zuhaitza bidetik kentzeko orduan izandako ardura gabezia. Ohartarazpen hauek helarazi genizkion aldundiari, eta erantzun zigun ebazpena berraztertu eta kexa onartu zutela.

## ZAILTASUNAK ARGENTINAR BATEN HERIOTZAREN GAINEKO ZENBAIT ARGIBIDE JASOTZEKO

Argentinako Santa Fe probintziako Arartekoak gure Arartekoari laguntza eskatu zion, Donostian hildako argentinarraren baten gaineko zenbait argibide lortzeko, zenduaren familia arazoak izaten ari baitzen heriotza-agiria eskuratzeko. Arartekoak Erregistro Zibilar heriotza-agiriaren kopia eskatu zion, eta eginkariez arduratu zen epaitegiko ofizialarekin gestio bat egin zuen, ez baitzen heriotzaren zergatik ageri. Jakin ahal izan genuen, autopsiaren emaitzaren arabera, heriotzaren zergatiak naturalak izan zirela. Hildakoaren aberkideek emandako datuei esker, Kotsulatuak haren senideak aurkitu ahal izan zituen. Gorpua Argentinara eraman nahi zuten arren, ez zeukaten ordaintzeko dirurik eta Donostiako hilerrian ehortzi zuten. Epaitegiko ofiziala familiari hildakoaren gauzak bidaltzeaz arduratu zen, baita gorpua non ehortzi zuten zehazteaz ere. Arartekoak argibide horiek guztiak Santa Fe probintziako Arartekoari jakinarazi zizkion.

## ZABORTEGI BATEAN HONDAKINAK ERRETZEAK TRABA EGITEN ZIEN INGURUKO HERRITARREI

Mallabiko herritar batek Arartekoarengana jo zuen zabortege baten inguruko irregulartasunak salatzen. Zabortegea legez kanpoko zen, ustez, eta herri horretako Goitza auzunean zegoen. Pertsona horrek zioen, zehazki, zabortegean hondakinak erre ohi zirela eta, ondorioz, inguruetan bizi direnei traba handiak eragiten zizkietela. Interesatuak baiesten zuten egitate horiek herriko udalari ere salatu zizkiola, baina ez zuela inolako neurririk hartu. Arartekoak udalari informazioa eskatu zion, ea zabortegeiak udalaren baimenik bazeukan eta ea zer egin zuten arazoa konpontzeko. Udalarek erantzun zion Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari arazoaren berri eman zela. Zabortegea urbanizatu ezineko lurrean zegoenez, eta, beraz, foru erakundearen eskumenekoa ez zenez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzari laguntza eskatu zion. Teknikariek egiaztatu zuten salatutako tokian hondakin mota desberdinak isurtzen zirela, eta kontrolrik gabeko erreketak egiten zirela. Horregatik guztiarengatik, Arartekoak Mallabiko udalari gomendatu zion, badaezpada neurri gisa, zabortege jarduera itxia dekretatzeko, eta titularrari hondatutako ondasunak lehengoratzeko eta ongitzeko eskatzeko, zegokion zehapen espedientea abia zedin kalterik gabe. Gomendioa onartu egin digute.



## ZABORREN TASA ORDAINTZEA NAHITAEZKOA DA

Zaborrik sortzen ez zeneko lokal baten jabeak kexa bat jarri zuen gure erakundean, Txingudiko Zerbitzuak delakoak zaborren tasa kobratzen ziolako. Zabor bilketako zerbitzuaren prestazioari dagokionez, Tokiko Araubideko Oinarriak araupetzen dituen Legeak udal guztiak, beren kabuz zein elkartuta, hondakinak biltzeko zerbitzua eskaintzera behartzen ditu. Halaber, kontuan izan behar da zabor bilketako zerbitzua juridikoki tasa modura eratuta dagoela. Beraz, nahitaez jaso beharreko zerbitzua da, hau da, zaborra sortu zein ez, udalerrri batean dagoen higiezin baten jabe den oro tasa hori ordaintzera behartuta dago, zerbitzua eskueran izateagatik, besterik gabe. Kexagileari zera jakinarazi zitzaion: Irunen kasuan, 1997 urtearen amaieran, udalak zarama-bilketa eta hiri-hondakin solidoen tratamendua eta suntsiketa Hondarribiko udalarekin elkartuta ematea erabaki zuela, Servicios de Txingudi, S.A./Txingudiko Zerbitzuak izeneko herri baltzu baten bidez. Horregatik zen mankomunitate hori Irungo udalerriko hiri hondakinen bilketa, tratamendu eta aprobeixamenduen tarifak araupetzen dituen zerga arautegia onesten zuena eta, beraz, ez genuen inolako irregulartasunik ikusi baltzu horren jardueran.



(El Correoren argazkia)

### Familien kenkariak

## EGOERA ZIBILAREN ONDORIOZKO BEREIZKERIA

Gipuzkoan bizi den herritar batek Arartekoarenean kexa bat jarri zuen, PFGZren Foru Arauan familien kenkariak persona banandu, dibortziatu edo ezkontza baliogabetzen zuen epaia zutenei soilik aplikatzen lagatzea bidegabeta zela irizten ziolako, egoera zibilaren kontuan izan ezik, gainerakoan egoera berean zeuden ezkongaiak kanpoan utzita. Gure ikuspegitik, kolektibo horrenaganako

bereizkeria arrazoirik gabekoa eta garbia da beraiekin bizi ez arren beren seme-alaben mantenuan lagundu edo parte hartzen duten ezkongaei ondorengoengatik kenkariak izateko eskubidea ukatzea, zeren hautsitako ezkontza loturarik izatea ala ez izateak ez baitauka zerikusirik seme-alaba baten mantenu ekonomikoan lagundu beharrezkin. Hartara, bada, Gipuzkoako Foru Aldundira jo genuen, gure kezka

berri ematera eta Batzar Nagusietan PFGZ araupetzen duen Foru Arauko 71.4 eta 72 artikulua, beraiekin bizi ez arren epaileen aginduz seme-alabei elikagaietarako urteroko diru kopuruak ordaintzen dizkieten ezkongaei ere kenkari horiek aplikatu dakizkien aldarazteko proposamena aurkezteko gomendioa egitera. Gomendioa onartu ziguten eta Foru Arauaren artikulua horien idazketa aldatu egin zen.



## LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALAK HERRI-BIDE BAT IXTEKO BAIMENA EMAN DIO HERRITAR BATI

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez baitzegoen konforme Lapuebla de Labarcako udalak hartutako erabaki batekin. Erabaki horren bidez, udalak bere jabetzako bide baten zabaleran itxitura bat jartzeko baimena eman zuen. Bide hori udal pilotalekuaren atzealdean dago, eta bertan larrialdiko irteera eta hainbat finkatarako sarbideak daude. Arartekoak udalari informazioa eskatu ondoren, hark txosten bat bidali zuen. Txostenean zioenez, egia zen herritar bati bidean itxitura-hesi bat jartzeko baimena eman ziola, baina baimen hori behin-behinekoa zen. Hala ere, udalerrri horretako arau subsidiarioetan erabilera eta jabetza publikotzat jotzen da bide hori. Horregatik, ez da bidezkoa arau subsidiarioetako xedapenen kontra doan baimen bat ematea, batez ere baimentzen duen erabilera bidearen izaera publikoarekin bateragarria ez bada, nahiz eta baimena behin-behinekoa izan. Beraz, Arartekoak gomendio bat luzatu zion Lapuebla de Labarcako udalari, baliorik gabe utz zezan bide horretan itxitura jartzea baimendu zuen udal erabakia, udalerrriaren hirigintza-araudiaren eta bidearen izaera publikoaren kontrakoa delako. Halaber, udalari eskatu zion beharrezko neurriak har zitzala, bide horretarako aurreikusita zegoen oinezkoen erabilera bermatzeko, ibilgailuei sartzeko ahalbidetuz. Gomendioa ez zen onartu.

## FAMILIARIK GABE DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK

Familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrek, babesik gabe dauden adingabeen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar desberdinak dituen taldea osatzen dute. Azken urteotan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri du talde horrengan eta, zehazkiago, lurralde historiko bakoitzean kolektibo horrentzat antolatuta dauden zerbitzuetan. Egoera aldatuz joan da urtetik urtera, eta lurraldeen artean alde handiak ikusten dira. Azken aldian, Bizkaian ikaragarri ugaltu dira adingabe horiek, Gipuzkoan ez daude hainbeste eta Araban askoz gutxiago dira, gero eta gehiago diren arren. Ez da erraza etorkizunaren gaineko aurreikuspenik egitea eta, horien arabera, beharrei aurre hartzea edo behar diren baliabideak programatu ahal izatea ere ez. Izan ere, adingabe hauen fluxuak (gehiago ala gutxiago daudeneko) unek, lurralde batetik bestera mugitzea...) faktore desberdinen arabera aldatzen dira: muga

igarotzeko dituzten ahalbideak, atzerritarren gaineko araudia, Erkidego bakoitzeko harrera zerbitzuen egoera, dokumentazioa denbora luzeegi joan gabe lortzeko erraztasun edo zailtasunak... Sarritan, halako faktoreek azaltzen dute zergatik, une jakin batean, harrera beharrak gehitu ala gutxitzen diren lurralde zehatz batean.

Gure Erkidegoan, erakunde arduradunek, ia kasurik gehienetan, adingabe horiek berariaz beraiantzat sortutako zerbitzuetan hartzea erabaki dute. Garbi dago, hala ematen du behintzat, erakundearen ahalegin guztiak adingabeen gizartratzea erraztera bideratu behar direla. Eta hori, funtsean, "paperak" lortuz eta lan mundura ahalik eta lasterren sartzeko behar dutena irakatsiz gauzatzen da. Horrela bakarrik saihestuko ditugu nahi ez ditugun egoerak, edo delinkuentzia kasuak gehitzea.



(Periodico de Alavaren argazkia)

## HERRITARTASUNAREN BALDINTZA ADMINISTRAZIOAREN AUKERAKETA-PROZESUETAN

Arartekoak jakin zuen euskal herri-administrazioek iragarritako enplegu-eskaintza batzuetan, batez ere udalen alorrekoetan, ez zela errespetatzen Euskal Herrian bizi diren atzerritarrek lan kontratuko enplegu publikoetara iristeko duten eskubidea. Horregatik, Arartekoak ofiziozko jardueran bat hasi zuen EAeko administrazio orokorraren

aurrean, hain zuzen HAEEn aurrean, jakin nahi baitzuen zein jarduera burutzen ari diren eskubide hori benetan berma dadin. HAEEn adierazi zigunez, txosten zehatz bat bidali zuen EAeko udal guztietara, euskal herri-administrazioen aukeraketa-prozesuetan herritartasunaren baldintza nola erabili argitzeko. Erakunde honen iritziz, lehen urrats

hori eginez HAEEn egoki jardun du, euskal herri-administrazioetako langileak hautatzean duen esku-hartzea eta erantzukizun berezia kontuan izanik. Beraz, Arartekoak bukatu du bere lana, baina, edonola ere, aurrerantzean EAEn iragartzen diren deialdiak elkarrekin ikuskatzea proposatu dio HAEeri.

## HERRI GUNEETATIK GERTU DAUDEN TENTSIO ALTUKO LINEA ELEKTRIKOEN ARAZOA

Eremu elektromagnetikoez pertsonen osasunean epe luzera dituzten ondoreak gure etengabeko zalantza dira. Kezka hori hariteria elektrikoetatik gertu bizi diren herritarrengan islatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eskumenen ariketan, tentsio altuko instalazio elektrikoak araupetu eta pertsonak eremu elektromagnetikoez beren osasunean izan lezaketen ondoreez egokiro babestea

bermatu beharko luke. Udaletako hirigintzako planeamenduetan, urbanizazio obren barruan, hiri lurra eta hiri lur urbanizagarria zeharkatzen duten tentsio altuko lineak derrigor lurperatzea ezarri beharko lukete. Gainera, alor elektrikoaren lurralde antolamendu egokia ere egin beharko litzateke, lurperatze murriztuaren politika proposatuko duena. Tentsio altuko lineen antolamendu eta arauketa egokiarekin

batera, jarduera horiek esku hartzen duten eragile guztien eta onuradun ateratzen diren guztien artean finantzatzeari buruzko eztabaida egin beharko litzateke. Marko honetan komeniko litzateke etapetako plana zehaztea, betebeharrak horretara moldatzen ez diren gaur egungo airetiko lineak lurperatzeko, linea bakoitzak izan dezakeen eragina kontuan hartuta.



(Periodico de Alavaren argazkia)

## UMEEI EGINDAKO TRATU TXARREN KASUETARAKO ERAKUNDEEN JARDUERA KOORDINATZEKO PROTOKOLOA

Arartekoak gaian eskumenak dituzten erakunde guztiei gomendatzen die haurren aurkako tratu txarrei aurre egiteko jarduerak aztertu eta irizpideak bateratzeko ahaleginetan bil daitezela. Umeen aurkako tratu txarrak errokit ezabatzeak eragingarritasuna areagotuko duen planteamendu orokorra eskatzen du, prozesu osoan: prebentzioa, antzematea, tratu txarren egoeren aurreko erreakzioa, eta hartutako neurrien jarraipena.

Adierazpenak mintzakide desberdinen aurrean errepikatu behar izateak, medikuen edo psikologoaren azterketek, epailetara joan behar izateak, ikaragarri eragin lezake haurraren, eta jada pairatutako tratu txarren ondorioak larriagotu. Horri gehitu behar zaio sarritan auzipetua biktimaren familia ingurukoa dela. Horregatik, herri erakundeek biktimizazio berri hori saihesteko neurri guztiak hartu behar dituzte. Haurren aurkako tratu txarren kasu baten berri izaten denean sortzen diren

erakundeen jarduerak hobeto koordinatu beharko lirateke, helburu batekin: adingabearen gaineko esku-hartzeak estu-estuan behar diren arazoak soilik mugatzea, eginkariak, adierazpenak edo miaketak errepikatzea ekidinez, biktimizazioa ez larriagotzeko. Baina helburu hori lortu nahiak ezin du auzipetuaren prozesu-bermeak murriztea ekarri, ez eta delituen ikerketa judizialaren eragingarritasuna gutxitzea ere.

## MERKATARITZAKO LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEA AHALBIDETZEKO UDAL ARAUTEGIAK

Euskal herritarren kezkarik nagusienetako bat ordaindu ahal dituzten etxebizitza gutxi dagoela da. Hainbat udalek berariazko arautegiak onartu dituzte, egoitzazko eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak etxebizitza bihurtzea ahalbidetzeko. Arautegi horiek onartzeko arrazoiak ulergarriak diren arren, herri administrazio eskudunak jabetu behar dira horrek dakartzan

arriskuez eta, arreta handiz aztertu behar dute zein den balizko arriskuak gutxitu edo ezabatzeko arauketarik egokiena.

Horregatik, Ararteko erakundeak zera gomendatzen du: gai hori arautzerakoan, udalek eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak aintzat har dezatela gutxieneko denda-kopuru bat mantendu eta gorde behar dela orain

dauden etxebizitza-eremuetan, mugatu egin behar direla eros daitezkeen lurrak, etxebizitza bakoitzeko espazio libreen ratioa mantentzeko, eta ordenantzetan gutxieneko baldintza batzuk ezarri behar direla etxebizitza duin eta egokiak prestatzen direla bermatzeko.



(El Correoren argazkia)

## ERRESERBAREN KUOTA PERTSONA EZGAITUEK EAEko ENPLEGU PUBLIKOAK HARTU AHAL IZATEKO SUSTAPEN NEURRI GISA

Arartekoak uste du gaur egun ezgaituen alde dagoen erreserba kuotaren portzentajea gehitzea komeni dela, egoki irizten bazaio, helburu hori lortzeko behar diren lege aldaketak eginez. Erreserba kuotaren aplikazioa funtzio publikoan sartzeko prozedura eta deialdi mota guztietara hedatu behar da, eta ahalik eta multzo eta kategoria guztietara ere, bateragarritasun

funtzionaleko irizpide estuen arabera justifikatutako kasuen salbuespen bakarrarekin.

Era berean, erakunde honen ustez, ahaleginak egin behar dira euskal herri-administrazioak kontura daitezzen enpleguaren eskaintza publikoek berek adierazi beharko luketela erreserba portzentajeen xehetasuna,

horren azterlana eta duen oihartzun praktikoaren jarraipena hobeto egin ahal izateko. EAren esparruan funtzio publikoaren alorreko enplegu publikoetarako ezgaituentzako aukeraren gaineko aholkularitza erakundeak ere sortu beharko litzateke, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren edo egokiago irizten zaion bestelako edozein formularen bidez.



## SASOIKAKO LANGILEEN EGOERA ARABAN

Sasoikako langileen egoeraren gaineko txostena pixka bat ezohikoa da, Arabako eremu zehatzak eta tarte jakin bat baititu hizpide nagusi: uza bilketako garaia eta ekinaldia. Azkeneko zazpi urteetan gai honen jarraipena egin duten Ararteko erakundeko langileek jorratu eta prestatu dute, oso-osorik, eta txostenak gutxi ezagutzen den errealitatearen oso ikuspegi zabala ematen du, besteak beste, urtez urte mahats eta patata bilketan ari diren pertsonak zer baldintzatan bizi diren eta lan egiten duten. Txostenak sasoikako langileen kontratazio sistemak aztertzen ditu, eta horien ondoriozko arazoak, bizitzeko tokien baldintzak, sasoikako familien seme-alabak eskolatzea eta ingurunean integratzeko ahalbideak eta bazterkeria jasateko arriskuak ere bai. Gainera, erakundeen inplikazioak ere hizpide dira, hau da, gizarte eragile desberdinek garatzen duten betekizuna eta erakundeek dagozkien erantzukizunak zein diren.

Txostenean islatzen diren kezka gai nagusiek, lehenik eta behin, kontratazio baldintzak dituzte hizpide, zeren beren baldintzak ezartzeko gai diren benetakotako mafiak baitaude. Gehiegizko ustiatzearen arriskuek,

bereziki, Magrebeko gizonei eta Portugalgo familiei ukitzen diete, baina oso jende gutxi ausartzen da salatzeraz. Bizitzeko eskaintzen diren tokiak, askotan eta oraindik orain, ez dira nahikoak izaten eta ez dituzte gutxieneko higiegi edo segurtasun baldintzak betetzen. Defizit horri aurre egiten saiatzeko ekimen erkideak oso gutxi dira oraindik. Sasoikako langileen seme-alaben eskolatzeari dagokionez, urrats garrantzitsuak egin dira: gizarte eta hezkuntza programak, sostengurako irakasleak, garraio eta jantokirako laguntzak..., egunero joaten direnak oraindik gutxi diren arren. Garbi dago, gainera, integratzeko ahalbideak eta bazterkeriarako arriskuak, hein handian, zer baldintzatan bizi edo lan egiten duten mende daudela. Hartara, herritarren gizarte sentsibilizazioa jorratzen jarraitu behar da, eta balizko errefusatzeei aurrea hartzen edo saihesten. Erakundeen inplikazioei dagokienez, sasoikako langileen arazoak administrazio desberdinak ukitzen ditu, eta horrek hobetzeko jarduerak zaildu eta koordinaketa, informazioaren elkartrukea eta programen jarraipena erraztuko dituzten foroak egotea eskatzen du.



(Casa Feliperen argazkia)



(Periodico de Alavaren argazkia)

Txostenean administrazio eskudunei zuzendutako 17 gomendio egin dira. Hona hemen gomendioak:

- Sasoikako langileen gaiko Mahaiaren betekizuna sendotzea –edo bestelako bitarteko bat sortzea erakundeen arteko koordinaketarako mekanismo gisa
- Gaiak ukitzen dien administrazio guztiak inplika daitezkeen lortzea
- Ukitutako eremuetan zerbitzu jakin batzuen erantzuteko ahalmena aldi batez gehitzea
- Jatorrizko herrian bideratutako kontratazioak sustatzea
- Birkontratatzeak salatu eta jartzatzea
- Kontratazioaren izapideak erraztu eta Lan Ikuskaritzaren esku-hartzea areagotzea
- Aldi baterako lan burtsen sorrera edo kudeaketa sustatzea
- Arabarako nekazaritza arloko lan hitzarmena negoziatzea
- Sasoikako langileentzako bizitokien baldintzak araupetzea
- Erakundeentzako laguntza antolatuta edo laguntza bide horiek erabiltzea, lokalak bizitoki gisa prestatu eta txukuntzeko
- Aterpetxe edo talde ekipamenduen ekimenak sustatu eta babestea
- Lokalen kontrol eta ikuskapeneko betekizunak argitu eta garatzea
- Ahal den modu guztietara, adingabe gehiago eskola daitezkeen lortzea
- Zentroen hezkuntza erantzuna hobetzea
- Gizarte eta hezkuntza programak jarraitu eta hedatzea
- Gizarte sentsibilizazio programak eta jarduerak garatzea
- Sasoikako langileei beren eskubide eta betebeharren edo eskueran dituzten zerbitzuen berri ematea

## ARGITALPENAK





■ Eusko Legebiltzarrerako txostena, Ararteko erakundeak aurreko urtean egindako guztia jasotzen duena.

■ Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketa txosten berezia. Txostenak gutxi ezagutzen den errealitate horren ikuspegi zabala eskaintzen du, urterotero Arabako Errioxara eta Arabako beste eremu batzuetara mahatsa eta patata biltzera etortzen diren pertsonak nola bizi diren eta zer baldintzatan lan egiten duten, hain zuzen.

■ Derechos humanos y nuevas tecnologías. Ararteko erakundeak beste batzuekin batera antolatutako Jardunaldiko ponentzia eta hitzaldien bilduma da, uztailean, izenburu berarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearen XXI. Udako Ikastaroetan burutu zena.

■ Xabier Maria Munibe Peñafloidako kondearen Discursos inéditos (argitaratu gabeko hitzaldiak). Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen sustatzaile eta lehenengo zuzendari izan zenaren hitzaldi argitaragabeen antologia da. Agiri horien argitalpenarekin, Ararteko erakundeak dokumentu baliotsuak berreskuratu ez ezik, ilustratua bezala, askatasun, kideetasun, tolerantzia eta gizarte justiziako printzipioetan oinarritutako gizarte berriaren funtsa izan diren pentsamendu ildoak ere hedatu nahi izan ditu.

■ Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin batera, abenduaren 10ean, Ararteko erakundeak, urtero, kartel bat ateratzen du pertsonarik behartsuenen premienganako sentsibilizazioa areagotzeko, eta giza eskubideak defendatu eta babesten aktiboki parte hartuko duen gizarte bilakatzeko bidean aurrera egiteko. Era berean, egutegiak atera dira, haurren 10 oinarrizko eskubideak nabaritzeko. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegietan banatu dira.





## JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK BESTE ARARTEKO BATZUEKIN

■ Apirilean, Mertxe Agúndez Madrilen izan zen, giza eskubideen zaintzaren gaineko “Reunión Intercontinental (Unión Europea/América Latina-Caribe) sobre tutela de derechos humanos” nazio eta kontinente arteko bileran. Topaketa honetan giza eskubideen zaintzaren gaineko hainbat esperientzia eta lan teorikoren inguruko ikuspegia eskaini zen, aztertutako eremu geografikoetako herrialdeetan araupetu eta aplikatzen den bezala.

■ Jarduneko Arartekoak urrian, Lisboan, Erkidegoetako Adimen Osasuneko 1. Iberiar Kongresuan parte hartu zuen, eta gure Autonomia Erkidegoan buru edo adimen gaixotasun kronikoa duten pertsonen ematen zaien artapena azaldu zuen.

■ Mertxe Agúndez jarduneko arartekoa, urrian, Lisboan izandako Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarren VII. Kongresuan egon zen.

■ Mertxe Agúndezek Arartekoen XVII. Jardunaldietan parte hartu zuen, urriaren amaieran, Iruñean. Jardunaldi horietan, Arartekoak, etorkinei gizarteratzen laguntzeko politika aktiboak egiteko bitarteko gisa, inmigrazioko planek duten eragingarritasuna izan zuen hizpide. Gainera, Arartekoak ahultasun bereziko egoeretan dauden adingabeen zenbait kolektiboren arazoez egiten duen azterketa ere azaldu zuen, erakundeek haien beharrei nola erantzuten dieten baloratu eta hobetzeko proposamen ugari eginez.



Herri Defendatzaileak

## TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERA ETA BEHARRAK

Mertxe Agúndez jarduneko arartekoa Legebiltzarrean agertu zen, terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak aztertzeaz arduratzen den ponentziak eskatuta. Ararteko erakundeak, terrorismoaren biktimei dagokienez, indarkeria jasan duten edo jasaten duten pertsonengandik hurbil egon eta zalantza eta baldintzarik gabeko sostengua emateko jarrera izan du beti.

Bere hitzaldian, Arartekoa indarkeria terroristaren biktimek material eta moralki kalte-ordaina jasotzeko eta babestuta

sentitzeko duten eskubideaz mintzatu zen. Mertxe Agúndezek gehitu zuen: “biktimak ez dira ikusezinak, hemen daude, gure artean, eta gure maitasuna behar dute. Konplizitate keinuak behar dituzte, elkartasunezko besarkada bat, agur zintzo eta abegitsua. Adiskidetzeko bide luzean, esan behar dugu ez dagoela adiskidetzetik egia eta oroimena onartu eta aitortu ezean. Egia behar dugu, hainbeste sufrimendu bidegabe, pertsona errugabeen hainbesteko sufrimendua onar dadin. Biktimaren begiradak oroimena berreskuratzen behartzen gaitu, egia distiratsu

ager dadin.” Arartekoak azpimarratu zuen ezin dugula ahaztu biktimak gizakiak, pertsonak direla, “biktimei aurpegia ipini behar diegu, begietara begiratu behar diegu. Besteak ere sentimenduak dituela, sufritzen duela onartzeak, gorrotoak hausten laguntzen digu”. Arartekoak erantsi zuen intolerantzia, gorroto eta sufrimenduko urte asko daramagula, eta, indarkeriaren kulturaren ordez, bakearen kultura hartzearen alde azaldu zen, bazterkerien kultura laga eta aniztasun eta tolerantziaren kulturari hel diezaiozun garaia baita.



## IKERKETA BEKAK

■ Aurten, 2001ean emandako beka bati zegokion gizarte bazterkeriaren arazoa, enpleguak gure gizartean duen esanahia eta oinarritzko errentaren aplikazioa ikertzeko lanarekin jarraitu da. Datu bilketa oso aurreratua dago, eta azterlanaren zenbait kapituluren lehen idazketa eginda dago. Azterlanak gure egungo gizarte eredu berrikusi eta zenbait konturi buruzko alternatibak eskaini nahi ditu.

■ Ararteko erakundeak ikerketa beka berri baterako deialdia atera du, eta Beatriz Sicilia Oñari eman zaio. Europar Batasunaren esparruko giza eskubideen defentsa jorratuko du, gai horren inguruan araudietan egiten ari diren aldaketan eremuan.

■ 2001ean emandako ikerketa aplikatuko bekari buruzko lanek ere jarraitu dute. Ikerlanak EAEn bizi diren Magrebeko herritarren artean dauden gutxiengoek egun beren kultura bizitza, erlijioa eta hizkuntza propioak erabiltzeko dituzten eskubideak gauzatzeko dauzkaten ahalbideak aztertu nahi ditu.

## ADINGABEEN WEB ORRIALDEA

Ararteko erakundeak, herritar guztien eta, bereziki, kolektiborik ahul eta behartsuenen eskubideen defendatzaile izanik, bere web orrialdean, ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)), haurrekin lotutako gaien berariazko atala funtzionatzen jarri du. Txosten bereziak, material didaktikoak, Haurren Eskubideen Hitzarmenaren testua eta UNICEFekiko lotura bat dira adingabeen web horretan dauden edukietako batzuk, eta berritasun guztiak gehitzen saiatzen gara. Ekimen berri honekin gogoetan lagundu nahi genuke, eta haur eta nerabeen, batez ere behartsuenen beharriaz dagokienez pertsonen sentsibilizazioa areagotzen eta haur

eta nerabeen eskubideen defentsan eta babesean aktiboki parte hartuko duen gizartea eraikitzeko bidean aurrera egiten ere bai.

Gainera, Ararteko erakundeak Gasteizko udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen "Gasteizko informatiboa" izeneko jardueran laguntzen du. Ikastegi bateko zenbait ikasle, aldiari-aldiari, kazetari bilakatzen da eta erakunde honen lanarekin zerikusia duten datu eta informazioak biltzen dituzte, ondoren, irratsaio informatibo bat, telebistako albistegi bat edo egunkari bat prestatzeko.



# ¿Necesitas defender tus derechos ?

## ACUDE A LA INSTITUCIÓN DEL ARARTEKO

- Para que investigue si la administración pública vasca ha cometido contigo algún abuso, arbitrariedad, discriminación, error o negligencia.
- Para que el Ayuntamiento, la Diputación o el Gobierno Vasco solucione tu problema si ha actuado incorrectamente.
- Para que recomiende mejoras en beneficio de todos.

### ¿QUÉ ES ?

- Es la **Defensoría del Pueblo del País Vasco**.
- Es una institución **independiente**.
- Es un servicio **gratuito**.

### ¿QUÉ HACEMOS ?

- Defendemos a las personas frente a las administraciones públicas vascas.
- Mediamos entre los ciudadanos y la administración.
- Vigilamos y actuamos para corregir situaciones irregulares.
- Proponemos soluciones y promovemos modificaciones de las leyes.
- Informamos de nuestras actuaciones al Parlamento Vasco.

### ¿CUÁNDO SE DEBE ACUDIR ?

- Cuando tengas un problema con alguna administración o servicio público dependiente de ella.
- Después de haber reclamado ante la administración implicada y no haber obtenido respuesta o solución.
- Y dentro del plazo de un año a partir de ese momento.

### ¿CUÁNDO NO HAY QUE ACUDIR ?

- Si el conflicto es entre particulares.
- Si el asunto ha sido planteado en vía judicial.

### ¿CÓMO PRESENTAR LAS QUEJAS ?

- Aportando datos personales (nombre, apellidos, dirección, teléfono), copias de documentos útiles y, cuando sea posible, un escrito con el motivo de la queja.
- Por carta (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Por internet desde la web: [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)
- O bien, en persona, en cualquiera de las tres oficinas.

### ¿DÓNDE ACUDIR?

Oficinas de atención directa

#### En Álava

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz  
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

#### En Bizkaia

Alameda de Mazarredo, 15 - 5º A • 48001 Bilbao  
Tel.: 944 23 44 09 • Fax: 944 24 18 44

#### En Gipuzkoa

Avda. de la Libertad, 26 - 4º • 20004 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943 42 08 88 • Fax: 943 42 72 97

Si necesitas más información, llámanos

# Zure eskubideak defendatu beharra daukazu ?

## ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

### ZER DA ARARTEKOA ?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independentea** da.
- **Dohain** eskaintzen den zerbitzua.

### ZER EGITEN DU ARARTEKOAK ?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

### NOIZ JO ARARTEKORA ?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

### NOIZ EZ JO ARARTEKORA ?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

### NOLA EGIN KEXAK ?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiai eta, ahal denean, kexaren arrazoiak azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

### ¿NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

#### Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz  
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

#### Bizkaian

Mazarredo, 15 - 5. A • 48001 Bilbao  
Tel.: 944 23 44 09 • Faxa: 944 24 18 44

#### Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4gn • 20004 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943 42 08 88 • Faxa: 943 42 72 97

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



ARARTEKO